# GU GEU

2023-2024



# Aurkibidea


1. Murala 3
2. Zineforuma 4
3. Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna 6
4. Euskararen eguna 8
5. Amuge-kontakizun lehiaketa 9
6. Kulturarteko eguna 11
7. Gabonak Txurdinaga Behekoan 12
8. Talent Show 15
9. Aratusteak eta Mozorro-lehiaketa 21
10. Irteerak eta ekintzak 22
11. ERASMUS DAYS 2023 32
12. Proyecto realizado con la artista Angelica Dass 34
13. Bidaia kulturala Madrilera 36
14. Agenda 30ren txokoa 38
15. STEAM Proiektua DBH4 39

# MURALA

EHUko Arte Ederretako mural margolaritza masterreko bi ikasleen laguntzaz aurten ere mural zoragarri bat sortu dugu.   Mila esker Unai, Martzel eta partaide guztiei!

Una vez más hemos realizado un mural con la ayuda de los alumnos del Máster de Pintura Mural de la facultad de Bellas Artes.  Eskerrik asko Unai Martzel y tod@s l@s participantes!








# ZINEFORUMA TXURDINAGA BEHEKOAN




Zineforuma hezkuntza-jarduera bat da, non pelikula edo dokumental bat proiektatzen den eztabaida gidatu baten ondoren. Jarduera hau institutuko ikasle eta komunitate guztiei zuzenduta dago, eta hautatutako ikus-entzunezko materialean dauden hainbat gairi buruzko elkarrizketarako eta hausnarketarako gune bat sortzea du helburu.

Helburua, batez ere, zinemaren bidez gai garrantzitsuei buruzko azterketa kritikoa eta eztabaida ez egitea da, ikasleen artean kultur garapena eta pentsamendu gogoetatsua sustatuz.

Pelikulak edo dokumentalak irakasgai desberdinetako irakasleek osatutako batzorde batek aukeratu ditu, gaien aniztasuna eta hezkuntzaren egokitasuna bermatuz. Horretarako, gaiaren garrantzia, zinema-kalitatea eta ikasleen adinera eta kultura-testuingurura egokitzea hartuko dira kontuan.

Proiekzioaren ondoren, moderatzaile batek gidatutako eztabaida bat antolatuko da, bertaratutakoen parte-hartze aktiboa sustatuko duena.

Ikasleentzako onurak:
- Pentsamendu kritikoa eta aztertzeko gaitasuna garatzea.
- Komunikazio- eta argudio-trebetasunak hobetzea.
- Talde-lana eta lankidetza sustatzea.
- Gai sozial, kultural eta etikoei buruzko sentsibilizazio handiagoa.

Zineforuma aukera bikaina da ikasleen prestakuntza aberasteko, inguruan duten mundua ulertzeko eta zalantzan jartzeko tresnak eskainiz zinemaren hizkuntza unibertsalaren bitartez.
Aurten Filosofia mintegiak Zinerforumeko sites bat sortu zuten, horrela informazio guztia eskura izan ahal zuen Institutuko komunitatea.

Emanaldi guztiak arratsaldeko 16:00etan izan ziren eta filma ikusi ostean solasaldia izan zuten.

Ikusi diren filmak hauek izan dira:

- Arrugas
- The King of Pigs
- Dias extraños
- eXistenZ
- El club de la lucha
- ManHunt Unabomber+ Zima Blue
- 12 hombres sin piedad
- This is England
- La vida de Adele
- Joker






























# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

## Día Internacional de la Eliminación de la Violencia Contra las Mujeres

Azaroaren 25an Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna, ospatzen da. Gaur egun, emakumeen eta nesken aurkako indarkeria munduko giza eskubideen urraketarik zabalduena, iraunkorrena eta suntsitzaileenetakoa da. Generoen arteko desberdintasunak mundu osoan dirau. Horrekin amaitzeko, ahalegin handiak egin behar dira gure gizartean errotuta dagoen diskriminazioari aurre egiteko.

NBE Emakumeak erakundearen txosten berri batek, pandemiaz geroztik 13 herrialdetako datuetan oinarrituta, jasotzen du 3 emakumetik 2k indarkeria motaren bat jasan zutela edo indarkeria hori jasaten zuen emakumeren bat ezagutzen zutela. Zoritxarrez, 10etik 1ek bakarrik esan zuen poliziarengana joko zuela laguntza bila. Era berean, emakume horiek pobrezia-egoerei eta elikagai-eskasiari aurre egiteko aukera gehiago dituztela ondorioztatu zen.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, gure institutuak hainbat proiektuetan parte hartu du, egoera hori ikusarazteko eta salatzeko.

Azaroaren 25ean Mintegiak dinamika desberdinak proposatu zizkien ikasleei Zientzia, literatura … arloan, historian zehar "ikustezinak" izan diren emakumeek egindako lana eta ekarpenak ikustaratzeko.

En el mes de noviembre se conmemora el 25N, Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres. En la actualidad, la violencia contra las mujeres y las niñas es una de las violaciones de los derechos humanos más extendidas, persistentes y devastadoras del mundo. La desigualdad entre los géneros persiste en todo el mundo. Acabar con ella requiere grandes esfuerzos para combatir la discriminación profundamente enraizada que existe en nuestra sociedad.

Un nuevo informe de ONU Mujeres, basado en datos de 13 países desde la pandemia, recoge que 2 de cada 3 mujeres padecieron alguna forma de violencia o conocían a alguna mujer que la sufría. Por desgracia, solo 1 de cada 10 dijo que recurriría a la policía en busca de ayuda. A su vez, se llegó a la conclusión que estas mujeres tienen más probabilidades de enfrentarse a situaciones de pobreza y escasez de alimentos.

Por todas estas razones, nuestro instituto ha puesto en marcha diferentes proyectos participativos y exposiciones, para visibilizar y denunciar esta situación.



# EUSKARAREN EGUNA

Abenduak 1ean ospatu zen Euskararen eguna. Euskararen eguna dela eta, urriaren 16tik 22ra "Egunean behin" lehiaketa institutuko taldean irabazi zutenei saria eman diegu, gero IES Txurdinaga beheko BHI komunitatea gaztainada batetaz disfrutatu zuten.



Ikaslea irabazlea: Alexis Arranz



Irakasle irabazlea : Kistiñe Astigarraga

# AMUGE-KONTAKIZUN LEHIAKETA

Azaroak 16an Euskal Ijito Herriaren eguna ospatu zen, ikasle batzuk kontakizun lehiaketan parte hartu zuten eta irabazlea DBH3. mailako ikasle bat izan zen, Israel Borja.






Ikasle irabazlea: Israel Borja

# ARRAZAKERIARI ALERGIA DIOT

Neguko egun euritsu batean, Basurtoko ospitalean, Claudia izeneko haur bat jaio zen. Nahiz eta egun horretan euri zaparrada ari, senide ugari ospitaletik kanpo zeuden, haurra ezagutzeko eta gurasoak zoriontzeko irrikitan.

Urteak pasa ahala, Claudia nagusitu zen. Oso neska alaia zen. Begi itzelak zituen, barre egiten zuenean txiki-txiki egiten zirenak. Musika entzutea zen gehien gustatzen zitzaiona.

Claudia bere nebekin batera hazi zen. Bere nebak Julian, Ritxi eta Alex deitzen ziren. Hauek Claudia asko maite zuten, oso ondo zaintzen zuten, parkera joaten ziren eta elkarrekin primeran pasatzen zuten jolasean.

Urteak aurrera egin arren, Claudiak parke horretara joaten jarraitu zuen. Bere nebak nagusiagoak zirenez eta eskolako egiteko gehiago zituztenez, parkera gero eta gutxiago joaten ziren.

Parkean beti haur eta gazte berdinak zeuden: Ari izeneko neska bat eta Oliver eta Sergi izeneko bi anaia bikiak.
Claudia eta Ari oso lagun minak egin ziren baina, Oliverren eta Sergiren jarrerak ez ziren oso egokiak... matoiak ziruditen!

Egun batean, bi mutil hauek neskeei "gezurti" deitzen zieten, beste batean haien gurasoak eta haiek lapurrak zirela esaten zieten, kartzelan egon behar zirela oihukatuz. Anaiek ijitoak fidatzekoak ez zirela eta, kontuz ibili ezean, galtzak lapurtzen dizkizutela pentsatzen zuten.

Momentu horretan Claudiak besoan azkura sentitu zuen. Beste egun batean, horrelakoak berriz entzutean, azkura sorbaldan sentitu zuen, hurrengoan oinan, etab.



Denbora pasa ahala, konturatu ziren Claudiak alergia bitxia zuela: ijito izateagatik intsultoak jasotzen zituen bakoitzean, azkura sentitzen zuen bere gorputz osoan. Medikuek ez zeukaten informazio askorik alergia honen inguruan, Claudiaren kasua lehenengoa izan baitzen. Hau guztia zela eta, adituek telebistan Claudiari gertatutakoari buruz hitz egin zuten.

Aurora izeneko injineru genetikoa ikasten ari zen neska gazte batek Claudiari zer gertatzen zitzaion entzutean, Valentziatik bidaitu zuen Euskal Herriraino, laguntzeko asmoz: ikerketa ezberdinak egin zituen eta Claudiari froga mediku ezberdinak egin zizkion.

Aurorari esker deskubritu zen ijitoen gorputzek arrazakeriaren aurrean azkura sentitzen zutela. Hala ere, Aurorak ez zuen gaixotasun honi aurre egiteko txertorik asmatu nahi. Horren ordez, munduari hurrengoa azaldu zion: gaixotasun honi aurre egiteko, arrazakeriarekin amaitu behar dugu, berdintasuna lortzeko borrokatu beharra daukagu eta bakoitzak den modukoa errespetatu.



Amuge
EUSKADIKO EMAKUME IJITOEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUJERES GITANAS DE EUSKADI

# KULTURARTEKO EGUNA

Maiatzak 28an ospatu genuen Kulturarteko eguna.

Ikasleak eta irakasleak parte hartu zuten eta interesa izan zuten egun honetan egin ziren jardunaldietan.



# GABONAK TXURDINAGA BEHEKOAN



Urtero bezala, abendua iristen denean, gure institutuan hainbat ekintza prestatzen dira Gabonak ospatzeko.

Abenduaren 22an gabon kanten lehiaketa izan zen. DBHko eta Batxilergoko klaseak gabon kantak abestu zituzten, eta epaileek –haien arten Mari Domingi eta Olentzero- klasez klase joan ziren eta puntuatu zuten gabon kanta onena.



DBH4ko ikasleak **Gabonetako bideo bat** egin zuten Institutuko komunitatea ikusteko eta disfrutatzeko...

Gabonetako bideoaren irudi baten kaptura:



GABONETAKO LEHIAKETAK 2023

IKASLE ETAI RAKASLE ASKO ANIMATU ZIREN PARTE HARTZERA !!!!!
Hauek izan dira Gabonetako lehiaketak:

1- POSTAL LEHIAKETA

2- GUTUNA LEHIAKETA

3- EUSKAL KANTEN LEHIAKETA

Musika eta Euskara irakasleekin, eta tutoreekin, ikasleek euskal kanta bat aukeratu eta prestatuko zuten.

Abenduaren 22an, Olentzero eta Mari Domingi, gainerako epaileekin batera, ikasgelaz ikasgela joango ziren eta taldeak haien aurrean kantatu zuten.

4-KLASEKO ATEEN DEKORAZIOA LEHIAKETA**.**

Lehiaketan Institutuko talde guztiek parte hartu dute. Klase bakoitzak ateak modu sortzailean apaindu ditu, eta gehienak birziklatzeko materiala erabiliz.


MERRY CHRISTMAS
FELIZ NAVIDAD














Zorionak
Urte berri on



# TALENT SHOW



Abenduaren 22an, ostiralean, Talent show bat egin zen (talentu-lehiaketa), eta DBHkoeta Batxilergoko ikasleek parte hartu zuten.

Lehiaketan, ikasleek beren dohain artistikoak erakusteko aukera izan zuten, batez ere dantza, abesti eta antzerki emanaldien bidez. Giroa ezin hobea izan zela esan daiteke; publikoa interpreteekin bat etorri zen hasiera-hasieratik. Ikasleek gogo biziz hartu zuten ekimena, eta, horrela, jarduera bikainez gozatu ahal izan genuen.

Funtzioak amaitzean, bozketa bat egin zen jarduera nabarmenena hautatzeko. Jarduerak izan zuen arrakasta ikusita, hurrengo urteetan errepikatzea espero dugu.

El viernes 22 de diciembre se realizó un *Talent Show* (concurso de talentos) en el que participaron alumnos/as de la ESO y Bachillerato.

En el concurso los/as alumnos/as tuvieron la oportunidad de demostrar sus dotes artísticas mediante bailes, canciones y representaciones teatrales principalmente. Se puede decir que el ambiente fue inmejorable; elpúblico entró sintonía con los intérpretes desde el primer momento. La iniciativa se recibió con gran entusiasmo por parte del alumnado y así pudimos disfrutar de unas actuaciones excelentes.

Al finalizar las funciones, se llevó a cabo una votación para seleccionar la actuación más destacada. Dado el éxito que cosechó la actividad, esperamos repetirla los próximos años.






















1.000.000.000,00





**SARIAK**























URTE BERRI ON
EGUBERRI ON
FELIZ NAVIDAD
MERRY CHRISTMAS
JOYEUX NOEL

# ARATUSTEAK ETA MOZORRO-LEHIAKETA

Otsailean mozorro-lehiaketa egin zen. Kurtso guztietako ikasleek parte hartu zuten eta izugarri pasatu ginen.





**Dekorazio Ziklo**ko ikasleak abanguardia Artistikoen oinarritutako maskara bolumetrikoak egin zituzten. Lanaren gaia izan zen : “PLANOTIK 3 DIMENTSIOETARA” Korronte ezberdinen interpretazioa.



Irakasleak ere animatu ziren mozorro egunean.



# IRTEERAK ETA EKINTZAK

## DBH1 irteera Arnotegi

Inguruko landaredia ikusi genuen, bertako landareak eta landare inbaditzaileak. Horrela, Euskal Herriko landare garrantzitsuenak ezagutu genituen, haritza eta pagoa. Horrez gain, natura-ingurunearen kontserbazioak zer garrantzi duen ikusi genuen eta giza jarduerak eragindako ingurumen-inpaktuak aztertu genuen, adibidez pinuaren kasuan. Amaitzeko, hosto ezberdinak hartu genituen gero klasean herbario bat egiteko.






## DBH1 irteera Azkuna Zentroa



Bisita gidatu bat egin genuen, “the artwork as a living system” erakusketa ikusteko. Ikasle talde bakoitzak pieza bat aukeratu zuen, gero ikastetxean audio-gida bat sortzeko. Amaitzeko, irratiaren oinarrizko elementuak ikasteko tailer praktikoa egin genuen.



## DBH3 irteera Iturritxualde mendia

Bisita gidatu bat egin genuen, Iturritxualde mendia ezagutzeko eta bertako historia ezagutzeko. Gero, orientazio tailerra egin genuen. Amaitzeko, Artxandako udal ortuak ikusi genituen.









## DBH2 irteera Zugastieta / La Arboleda



**Lurzoruaren nazioarteko** eguneko txapelketan parte hartu zuten eta hau izan zen oparia: Zugastietara / La Arboledara irteera bat.

Bertan, La Arboledako inguruetatik ibilbidea bat egin zuten hainbat gai aztertzeko: paisaiaren aldaketa, lurzoruaren eta landaretzaren bilakaera, burdin-mineralak..., gero zuhaitzen landaketa bat egin zuten eta amaitzeko ikasitakoa errepasatuz zuhaitzak ezagutzeko ginkana bat egin zuten.

## Laboral Kutxa - D.B.H. 4.




Urriaren 18an, DBH 4. mailako ekonomia ikasleek Bilboko Laboral Kutxaren sukurtsala bisitatu dute. Bertan finantza arloko profesional batek ezin hobea, banku baten funtzionamendua, zerbitzuak eta produktuak azaldu dituzte. Praktika barne! Oso bisita atsegina eta interesgarria izan da. Ikasleak primeran egon dira.

El 18 de octubre, los alumnos de Economía de 4º de la ESO realizaron una visita a la Caja Laboral de Bilbao. Allí, excelentes profesionales del campo de la economía, explicaron el funcionamiento, los servicios y los productos de un banco. Fue una visita muy entretenida y agradable. Los alumnos estuvieron estupendamente.






## ITSASMUSEORA IRTERA. DBH3 ETA DBH4

DBH3 eta DBH4 ikasleak Bilboko Itsasmuseoa bisitatzen eta Azterkosta programako datuak jasotzen: Bilboko ibaiaren ura analisia egiten.



# Zientzia astea - D.B.H. 3 eta Batxilergo 1A.

DBH3 eta BACH1A ikasleak Zientzia Astea ospatzen Deustoko EHUn.







# Wurth Museoa - Batx. 2 eta Zikloa

Apiriliaren 26an, batxilergoko bigarren mailako ikasleek eta Zikloko 1go eta 2. Mailako ikasleak Wurth Museoa bisitatu zuten, zehazki arte-zentroa.



Helburua, Arte Garaikidearekiko eta kulturarekiko interesa sustatzea da, ikasgelatik kanpo ikastea sustatuz eta hezkuntza-esperientzia aberasgarria eskainiz.



Würth Museorako txangoa institutuko Dekorazio Zikloko eta Batxilergo Artistikoko 2. mailako ikasleei zuzenduta izan da, eta arte garaikidera eta museo ospetsu honek dituen bildumetara hurbiltzea du helburu. Bisitan zehar, ikasleek hainbat artelan aztertzeko aukera izango dute, baita arte-adierazpenei eta horiek gizartean duten eraginari buruz hausnartzeko ere.

Würth Museorako txangoa aukera paregabea da ikasleek arte garaikidea bizipenez deskubritzeko, haien garapen kulturala eta pertsonala sustatuz.

## Ikasleak Berreginen Museoan eta Bilboarten - Batx. 1.




Arte Plastiko Batxilergoko 1. mailako ikasleak Bilboko Berreginen Museoa eta Bilboarteko baliabideak eta sortzuntzarako espazioak bisitatzera irten ziren. Irteera ezin hobea izatea egin izananagaitik mila esker guztioi.

Abenduaren 7an, asteazkena, Arte Batxilergoko 1. mailako taldeak San Frantzisko kaleko Berreginen Museora joan ginen Bilbon. Bertan, Louvre Museoaren edo Vatikanoko Museoen zuzeneko kopia zoragarriak ikusi ahal izan genituen. Gidari liluragarriek heroi eta jainkoen mitologia grekoaren kontakizunetan murgildu gintuzten: Laoconteren sufrimendutik, sugeek Gigantomakiari egindako erasoagatik, eta baita Erraldoien, Gearen (Lurra) eta Kronosen(Zerua) semeen eta Olinpoko Jainkoen borroka munduaren nagusitasunagatik. Hori guztiak eliza zahar baten eraikinaren barruan, bati baino gehiagori zer pentsaraztea eman baitzigun. Bai gozamena.

Ondoren, Antzinako Greziatik eta Errenazimendutik, XXI. mendeko artean murgildu ginen, Bilboarte Arte Ekoizpen Zentroa bisitatu baikenuen. Zentro honetan, Ateak Zabalik/Puertas Abiertas de BilbaoArte erakusketaren urteroko bisita gidatu bikaina ikusi ahal izan genuen, urte berean zentroan bekadun izan ziren artisten lanekin. Erakusketak, erakusketa-aretoak, estudioak eta zentroko beste espazio hartzen ditu, eta26 artistaren eta bi kolektibo artistikoren lanak biltzen ditu. Artista batzuekin ere hitz egin genuen, hala nola José Félix Gonzálezekin, oso atsegina izanzen bere obrari buruz hitz egitean, eta gure galderei erantzuten.

Gu bai zorionekoak hainbeste arte institututik hain gertu ikusteko...



El miércoles 7 de diciembre,los grupos de 1º de Bachillerato deArtes acudimos al Museo deReproducciones situado en la calle San Francisco de Bilbao. En su interior pudimos contemplar sus maravillosas esculturas, copias directas del Museo del Louvre o de los Museos del Vaticano. Las cautivadoras guías nos sumergieron en los relatos de la mitología griega de héroes y dioses: desde el sufrimiento de *Laoconte* por el ataque de las serpientes a la Gigantomaquia o el combatede los Gigantes, hijos de Gea (la Tierra ) y Cronos ( el Cielo) y de los Dioses del Olimpo por el dominio del mundo. Todo ello dentro del edificio de una antigua iglesia que nos dio que pensar a más de uno. Una gozada.

Posteriormente desde la Antigua Grecia y el Renacimiento, nos sumergimos en el arte del Siglo XXI, ya que visitamos el Centro de Producción Artística Bilboarte. En este centro contemplamos con una estupenda visita guiada la exposición anual de Ateak Zabalik / Puertas Abiertas de BilbaoArte con la obra de los artistas becados el mismo añoen el centro. La muestra ocupa la sala de exposiciones, los estudios y las salas del centro y reúne la obra de 26 artistas y dos colectivos artísticos. También hablamos con algunosartistas como José Félix González que fué muy simpático al hablarnos de su obra y atendió a nuestras preguntas. Un privilegio, ver tanto arte con sus protagonistas tan cerquita del instituto. Repetiremos!

# Irteera Kepa Garraza artistaren estudiora eta Bilborte arte zentrora

Batxilergo 1go mailako ikasleak Kepa Garraazaren tailerrera joan ziren, artistaren lan prozesua eta espazio artistikoa ezagutu zuten Kepa Garrazaren eskutik. Zuzenean artistaren ikuspuntua eta lana ezagutzea, ikasleentzako oso interesgarria eta aberasgarria izan zen.
Gero Bilbo Arte Zentrura joan ziren bisita bat egiteko, Bilboarten aukera izan zuten beste artista baten eskutik,  Alberto Lomas, bisitaldiaren atal bat ikusteko.







## Ikasleak Bilboko Arte Ederretako  Museoan - Batx. 1.







## Foru liburutegia. Dekorazio zikloko 2. maila

Urriaren 27an, ostirala, Dekorazio Zikloko bigarren mailako ikasleak Bizkaiko Foru Liburutegiaren eraikina ezagutzeko bisita gidatu batera joan ziren.

Jatorrizko eraikina handitzeko eta eraberritzeko proiektuei, irakurketa-funtsei eta horiek biltegiratzeko eta kontserbatzeko instalazioei eta eraikinaren erabilera desberdinei buruzko azalpenak ikusi eta entzun ahal izan genituen.



## Bilbao Ekintza – Dekorazio Zikloa

Azaroaren 21ean, asteartea, Dekorazio Zikloko lehen eta bigarren mailako ikasleek Bilbao Ekintzak Bilboko Matiko kalean dituen lokalak bisitatu zituzten.



Han, Nancy Batres arkitekto mexikarraren esperientzia entzun ahal izan zuten, Bilbao Ekintzaren eskutik diseinu eta dekorazio iraunkorreko negozioa online abiaraziz.

Era berean, ekintzaile berriei hastapenetan laguntzeko udal-erakunde honek eskaintzen dituen baliabideak ezagutu ahal izan genituen. Informazio hori oso baliagarria da ikasleentzat, lanaren esparruan etorkizun hurbilera begira. Bisitaldia Zabalguneko eraikinean amaitu genuen, Bilbao Ekitnzak bere bulego nagusiak dituen eraikinean.

## Elkarlana BILBAO EKINTZArekin - PROIEKTUEN AURKEZPENAK

Zabalgunea eraikinean, Bilbao Ekintzaren instalazioetan, Dekorazio Zikloko ikasleek aurrera eraman dituzten proiektuen aurkezpena egin zen. Ikasleek lokal bat ekintzaile berri batentzat apaintzeko hainbat proposamen garatu dituzte, zehazki, Bilboko Begoña auzoan boxeo gimnasio bat egiteko. Ostegunean aurkeztu zizkioten proposamenak sustatzaile izango denari, Bilbao Ekintzako arduradunen eta ikasketak egiten ari diren Txurdinaga Behekoa BHIko irakasleen aurrean.

Jarduera Dekorazio Zikloaren eta Bilbao Ekintzaren arteko lankidetza da, oso aberasgarria inplikatutako alderdi guztientzat, sinergiak sortzen baititu hezkuntzaren eta enpleguaren sustapenaren artean, kasu honetan, gainera, eremu publikoan.



## Colaboración con BILBAO EKINTZA - PRESENTACIONES DE PROYECTOS

El edificio Ensanche, en las instalaciones de Bilbao Ekintza, acogió la presentación de los proyectos que han llevado a cabo los alumnos del Ciclo de Decoración. Los alumnos han desarrollado diferentes propuestas de decoración de un local para un nuevo emprendedor, en concreto para realizar un gimnasio de boxeo en el barrio bilbaíno de Begoña. El jueves presentaron sus propuestas al futuro promotor, en presencia de responsables de Bilbao Ekintza y de parte del profesorado del IES Txurdinaga Behekoa BHI, donde realizan sus estudios.

La actividad es una colaboración entre el Ciclo de Decoración y Bilbao Ekintza, muy enriquecedora para todas las partes implicadas, ya que genera sinergias entre la educación y el fomento del empleo, en este caso, además, en el ámbito público.

# ERASMUS DAYS 2023

Erasmus Days 2023 ospakizuna dela eta, proiektu bat egin zuten Dekorazio Zikloko 2. mailan, Proiektuak II ikasgaian hain zuzen ere.

Urriaren 9tik 14ra bitartean, ekitaldiak eta jarduerak egin dira Europa osoko ikastetxeetan eta erakundeetan, Europako mugikortasun-programa hori ezagutarazteko eta ikusarazteko. Helburua




da Europako kultura-aniztasuna eta programak eskaintzen dituen irakaskuntza-ikaskuntza aukerak zabaltzea eta sustatzea.

Plangintza- eta kudeaketa-aldi luze baten ondoren, ikastetxeak aktiboki parte hartzen duen lehen ikasturtea izan da hau, eta egun zikloko bi ikasle ari dira praktikak egiteko mugikortasuna egiten, Aveiron (Portugal) eta Karlsruhen (Alemania), hurrenez hurren.

Informazioa esteka honetan duzue:

https://www.erasmusdays.eu/news_mp/erasmusdays-2023-is-on/

Proiektua: ERASMUS GUNEA

Klasean egin den proiektua da leku bat egokitzea institutuan bertan, informazioa erakusteko, kontsultak eta iradokizunak jasotzeko, ikasleen eta irakasleen ekarpenak sartzeko, nahiak eta kezkak adierazteko, eta abar, programa/esperientzia honi dagokionez. Erakusleiho edo hausnarketarako leku txiki bat izango da zentroko erabiltzaileentzat, eta kanpora ere zabaldu da, ate irekien jardunaldietan eta webgunearen eta sare sozialen bidez.




Banakako azterketa- eta hausnarketa-fase baten ondoren, ideiak bateratu dira, proposamen adostu batera iritsi arte, eta proposamen hori egin da.

Azkenik, proposamenaren dokumentazioa aurkeztu eta gauzatu egin da, talde-lana eginez.

## Proyecto Exprés. ZONA ERASMUS DAYS

Con motivo de la celebración de Erasmus Days 2023 se realizó un proyecto en 2º curso del Ciclo de Decoración, concretamente en la asignatura de Proyectos II.

Del 9 al 14 de octubre se celebraron actos y actividades en centros e instituciones de toda Europa para dar a conocer y visibilizar este programa europeo de movilidad. El objetivo es ampliar y fomentar la diversidad cultural europea y las posibilidades de enseñanza-aprendizaje que ofrece el programa.

Tras un largo periodo de planificación y gestión, este es el primer curso escolar en el que el centro participa activamente y en el que actualmente dos alumnos del ciclo han realizado la movilidad para realizar las prácticas, en Aveiro (Portugal) y Karlsruh (Alemania), respectivamente.

Tenéis información en el siguiente enlace:

https://www.erasmusdays.eu/news_mp/erasmusdays-2023-is-on/

Proyecto: ZONA ERASMUS

El proyecto realizado en clase consiste en acondicionar un espacio en el propio instituto para mostrar información, recibir consultas y sugerencias, incorporar aportaciones del alumnado y profesorado, expresar deseos e inquietudes, etc. en relación con este programa/experiencia.

Ha sido un pequeño escaparate o espacio de reflexión para los usuarios del centro, que también se extenderá al exterior, durante las jornadas de puertas abiertas y a través de la web y las redes sociales.




Tras una fase de análisis y reflexión individualizada, se pusieron en común las ideas hasta llegar a una propuesta consensuada. Finalmente, se presentó la documentación de la propuesta y se ha llevado a cabo, realizando un trabajo en equipo.

# PROYECTO REALIZADO CON LA ARTISTA ANGELICA DASS

**Proyecto con el alumnado de bachiller sobre el tema de la migración**

Angélica Dass es una fotógrafa brasileña que combina la fotografía con la investigación sociológica y la participación pública en la defensa de los derechos humanos. Es la creadora del proyecto fotográfico Humanae, una colección de retratos que revelan la diversidad del ser humano.

El viernes 26 de enero se hizo público el resultado de la convocatoria ART FOR CHANGE 2023 de la Caixa (Una iniciativa que impulsa el arte y la cultura como motores de cambio) para ejecutar en 2024.

Angelica Dass , artista internacionalmente reconocida, presentó la propuesta SUSTRAIRIK GABEKO ZUHAITZAK EZ DU AURRERA EGITEN / UN ARBOL SIN RAICES NO PROSPERA, y ha sido uno de los proyectos seleccionados

· El proyecto promueve el desarrollo de procesos artísticos generadores de una narrativa positiva de las migraciones y de la diversidad cultural en la comunidad. Se investiga la memoria, los álbumes de familia de las migraciones internas españolas y las migraciones internacionales. El objetivo es crear una obra colectiva y multidisciplinar que nos posibilite identificar un elemento común y darnos cuenta de que la migración forma parte de lo que es ser humano.

· El proyecto se desarrollará en Bilbao

· Asunto idioma: Angelica habla castellano e inglés. Puede ofrecer la intervención en aula en inglés y podemos hacer que la producción de textos que acompañen a las obras sea en euskera o en castellano.

· El resultado del trabajo lo incardinaremos en la conmemoración municipal del 18 de diciembre, día internacional de las personas migrantes.

· Nos gustaría terminar el proyecto con una exposición (EJEMPLO) y un evento en el que Angelica Dass charlaría con un grupo de jóvenes participantes y podríamos invitar a centros educativos de Bilbao (una especie de Ted talk coparticipado)

**El proyecto realizado con los/as alumnos/as se ha expuesto en el Instituto a partir del día de la Interculturalidad hasta final de curso, ya que se veía apropiado debido al tema que se trataba.**











# BIDAIA KULTURALA MADRILERA

Batxilergoko lehen mailako ikasleek Madrilera bidaia kulturala egin zuten. Bilbotik autobusez goiz goizean irten ziren eta Madrilera arratsaldeko 3akaldera iritsi zen. Ikasleek Prado Museoa bisitatu zuten, eta bisita gidatu baten bidez museoan dauden margolan zoragarriezgozatu zuten. Batez ere, Goyaren eta Velazquezen lanetan jarri zuten arreta.

Museoa bisitatu ondoren, autobusez bira panoramikoa hasi zuten. Biraren bidez, ikasleek Madrilgo lekurik esanguratsuenak ezagutu zituzten.

Bidaiaren bigarren eguna Letren Auzo ospetsua ezagutzeko eta goizean Reina Sofia Museoa bisitatzeko aprobetxatu zen. Arratsaldea Madrilgo erdigunea libreki bisitatzen eman zuten.

Ostiralean Ozeanografikora bisita egin zen goizean. Ozeanografikoan itsas fauna ugari dagoenez, ikasleek asko gozatu zutenbisitaz. Arratsaldeko ordu bata eta erdietan atera zen Bilbora itzultzeko autobusa.
Bazkaltzeko geldialdi labur bat egin ondoren, arratsaldeko zazpiak aldera iritsi zenBilbora.



Los alumnos de primero de Bachillerato realizaron el viaje cultural a Madrid. La salida de Bilbao en autobús se realizó por la mañana y la llegada a Madrid fue sobre las 3 de la tarde. En este viaje los alumnos visitaron el Museo de Prado, donde mediante una visita guiada disfrutaron de los maravillosos cuadros que alberga el museo. Sobre todo, se centraron en las obras de Goya y Velázquez.

Tras la visita al museo, realizaron un tour panorámico en autobús. A través del tour los alumnos conocieron los lugares más emblemáticos de Madrid.

El segundo día de viaje se aprovechó para conocer el famoso Barrio de las Letras y visitar el Museo Reina Sofía por la mañana.La tarde se dedicó a visitar el centro de Madrid libremente.

Al mediodía media de la tarde salió el autobús de vuelta a Bilbao. Tras una breve parada para comer, se llegó a Bilbao sobre las siete de la tarde.



# AGENDA 30-REN txokoa

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu Garapen jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, helburutzat duena giza garapena bultzatzea gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan. Hauek dira garapen iraunkorrerako helburuak:



# STEAM DBH4

DBH4. mailako ikasleek, STEAM proiektuan parte hartu dute eta ortuaren inguruan egin dituzten lan guztiak dokumentatu dituzte. Honetarako, Site bat sortu dute eta Institutu komunitatearekin partekatu dute.









IES TXURDINAGA BEHEKOA BHI
Gabriel Aresti Etorbidea, 8 Txurdinaga – Bilbao 48004
www.txurdinagabehekoa.eus




Bilbao

IES TXURDINAGA BEHEKOA BHI